



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko urriaren 25a

123. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzaileek 2015ean egindako eragozpen-oharrei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egin (2. or.).
- Nafarroako Kontseiluaren kide bat hautatzea. Hautagaiak aurkezteko epea luzatzea (10. or.).
- Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaiak aurkezteko epea luzatzea (10. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzaileek 2015ean egindako eragozpen-oharrei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 10ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzaileek 2015ean egindako eragozpen-oharrei buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzaileek 2015ean egindako eragozpen-oharrei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
 - II. Eragozpen-oharrak (4. or.).
 - III. Helburua, norainokoa eta mugak (5. or.).
 - IV. Ondorioak eta gomendioak (6. or.).
1. eranskina. Gure eskaerari erantzun ez dioten entitateen zerrenda (9. or.).

I. SARRERA

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoaren esparruan, Toki Administrazio eta Iraunkortasunari buruzko 27/2013 Legearen bigarren artikulua aldatu egin zuen, besteak beste, Toki Ogasunei buruzko Legearen 218. artikulua, eta ezarri zuen organo kontu-hartzaileak urtero Kontuen Epaitegiari igorriko dizkiola egindako eragozpen-oharren aurkakoak diren Udalbatzako buruaren eta Osoko Bilkuraren ebazpen eta erabaki guztiak.

27/2013 Legeak, halaber, bigarren xedapen gehigarri bat erantsi zuen, non Foru Komunitateari arlo honetan aplikatzekoa zaion araubidea xedatzen baitu; hartan ezartzen da ezen, oinarriko araudia betez, Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzaileek informazio hori Foru Komunitateko administrazioari eta Kontuen Ganberari igorri behar diotela.

Txostenak hiru atal ditu, sarrera honetaz gainera. Bigarrenean, labur azaldu dugu eragozpen-oharrei buruzko araudia. Hirugarren atalean, txostenaren helburuak, norainokoa eta mugak jaso ditugu, eta laugarrenean egindako azterlanetik eratorri diren ondorio eta gomendioak.

Lana oinarritu da eskatutako informazioari emandako erantzunetan, eta administrari batek, auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak egin du, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskerrak ematen dizkiegu toki entitateetako kontu-hartzaitza zerbitzuetako langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. ERAGOZPEN-OHARRAK

Eragozpen-oharrak arautzen duen foru araudia Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea da.

"245. artikulua.

1. *Organo kontu-hartzailea, kontu-hartzaitzaren eginkizunean aztertzen duen egintza, agiri edo espedienteen mami edo formarekin ados ez badago, erabaki edo ebazpena hartu baino lehenago eragozpenak idatziz aurkeztu beharko ditu.*

2. *Desadostasuna toki entitateen edo horien erakunde autonomoen aldeko eskubideen onarpen edo likidazioari badagokio, eragozpen-ohar bat idatziko da eta ez du, inolaz ere, espedientearen izapidetzea etenen.*

3. *Eragozpen-ohar horrek gastuen eskuragarritasuna, obligazioen onarpena edo ordainketen agindua ukitzen baditu, espedientearen izapidetzea etenen da, eragozpen horri hurrengo kasu hauetan soluzioa eman arte:*

a) *Kredituaren ez-nahikotasunean oinarritzen bada edo proposatutakoa egokia ez bada.*

b) *Ordainketa aginduak egiaztatzen dituzten agirietan akats larriak hautematen direnean edo horiek sortzen dituzten egintzak fiskalizatu gabe badaude.*

c) *Espedienteari funtsezko zaizkion betebeharrak edo izapidetzeak espedientearen jartzen ez direnean.*

d) *Eragozpen-oharra, obra, hornidura, eskurapen eta zerbitzuen egiaztapen materialen ondorio denean.*

246. artikulua

1. *Eragozpen-ohar hori ukitzen duen organoa horrekin ados ez badago, toki entitatearen lehendakariari dagokio desadostasun hori ebaztea, ebazpena exekutiboa izango delarik. Ezin izanen du inolaz ere ahalmen hori besteen eskutan utzi.*

2. *Aurreko zenbakian xedatutakoa galarazi gabe, desadostasun hori ebaztea Udalaren Osoko Bilkurari legokioke, eragozpen-oharrak:*

a) *Kredituaren ez-askitasunean edo desegokitasunean oinarriturik badaude.*

b) *Obligazio edo gastuei badagozkie eta horien onespina Osoko Bilkuraren eskumena bada.*

3. *Organo kontu-hartzaileak toki entitatearen lehendakariak hartu dituen ebazpen guztiak bilduko dituen txostena igorriko du Osoko Bilkurara, hau da, egindako eragozpen-oharren kontrakoak direnak, eta diru-sarrera arloan hauteman diren akats garrantzitsuenen laburpena.*

4. *Exekuzio-oinarrietan edo, horiek ez daudenean, aurrekontua onesten den unean Osoko Bilkurak hartzen duen erabakian, artikuluko 2. eta 3. zenbakietan adierazi diren eragozpen-oharrei buruzko txostenak Osoko Bilkurari aurkezteko jardunbidea ezarriko da".*

III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Honako hauek dira txosten honen helburuak, egindako eskaerari emandako erantzunetatik abiatuta:

- Zenbatekoen eta gaien arabera bildu eta sailkatzea toki entitateek egindako eragozpen-oharrak.
- Haiek aztertzea eta egiaztatzea haien arrazoiak edo kausak berdinak diren edo bat datozen toki entitate desberdinetan.
- Eragozpen-oharrak direla-eta emandako konponbideak aztertzea.
- Egindako azterketetatik heldu diren gomendioak egitea, ahal dela saiheste aldera toki entitateen kudeaketa dela-eta eragozpen-oharrak egon daitezela.

Informazioaren modu orokorrean aztertu da, baina adierazi egin ditugu beren garrantziarengatik edo errepikatzen direlako nabarmentzekoak diren gaiak. Hau da, txostenaren asmoa ez da kasu jakin bakoitzari buruzko azterketa egitea, baizik eta ikuspegi orokor bat eskaintzea.

Horretarako, Nafarroako 272 udali eta 77 mankomunitate eta batasun tradizionalak eskaera bat igorri zitzaizen posta elektronikoz, 2015. urtean egindako eragozpen-oharrei buruz informazioa ziezaguten. Eskaera hori 2016ko apirilaren 6an egin genuen, eta maiatzaren 5era arteko epea eman zitzaizen erantzuteko. Maiatzaren 6an, beste eskaera bat egin zitzaizen erantzun ez zutenei.

Bidalitako informazioan oinarrituta, eragozpen-oharrak aztertu, berrikusi eta sailkatu egin ditugu.

Lan hau egiteko, honako printzipio eta arau hauei jarraitu zaie: Kontuen Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren kontabilitateari buruzko auditoriako printzipio eta arauak, inguruabarren arabera egoki iruditu zaizkigun egokitzapenak eginik.

Txostenak honako muga hauek izan ditu:

- 14 mankomunitatek eta 4 udalek —guztira, 1.974 biztanle hartzen dituzte— ez diote erantzun gure eskaerari (ikus eranskina).
- Eragozpen-ohar batzuetan ez da zenbatekorik aipatzen (batzuetan, haien ezaugarriak direla-eta ezinezkoa izan delako).

Muga horiekin batera, halaber, aipatu beharra dago ezen, batzuetan, eragozpen-oharrak baino gehiago espedienteak zuzentzeko alde aurretiko oharrak aurkeztu direla.

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, egindako lanetik atera ditugun ondorio eta gomendio nagusiak aurkeztuko ditugu, bai eta aurreko urteekiko datuen alderaketa ere:

Lehena. Inkestak egin ditugun 77 mankomunitate eta elkarteetatik 63k erantzun dute. Inongo kasutan ere ez da eragozpen-oharrik egin. Erantzuna bidali ez dutenetatik —1. eranskinean ageri da zerrenda—, gehienak gizarte zerbitzuen mankomunitateak dira.

Bigarrena. 272 udalak direla-eta honako datu hauek daude:

	Udalen kopurua	
	2014	2015
Eragozpen-oharrak egin dituztenak	30	41
Eragozpen-oharrik egin ez dutenak	220	227
Ez dute erantzun	22	4
Guztira	272	272

Nabarmentzen dugu 272 udaletatik soilik lauk ez diotela gure eskaerari erantzun. 1. eranskinean erantzun ez dutenen zerrenda ageri da.

Eragozpen-oharrak egin diren 41 udaletan 171 eragozpen-ohar aurkeztu dira, guztira 1.271.290 euroko diru-kopurua egiten dutenak.

2014an eragozpen-oharrak aurkeztu zituzten 30 udaletatik, zazpik 2015ean ez dute halakorik aurkeztu, eta 2015ean eragozpen-oharrak egin dira aurreko urtean halakorik izan ez zen 18 udaletan.

Hirugarrena. Kopuruari erreparatuta eta kontuan hartuta zenbatekoak ez direla homogeneousak eta, gainera, ez dutela garrantziaren arabera proportzionaltasunik, honela banatu ditugu:

	2014			2015		
Tarteen arabera zenbatekoen gainean	Eragozpen-oharren kopurua	Zenbatekoa	Batez besteko zenbatekoa	Eragozpen-oharren kopurua	Zenbatekoa	Batez besteko zenbatekoa
Zenbatetsi gabe	33			37		
<1.000	47	15.938	339	38	14.995	395
>1.000<5.000	34	76.793	2.259	31	84.830	2.736
>5.000<10.000	18	136.831	7.602	28	201.793	7.528
>10.000<20.000	13	169.147	13.011	18	239.605	13.311
>20.000	16	580.898	36.306	19	721.066	37.951
Guztira	161	979.607	7.653	171	1.271.290	9.487

Laugarrena. Egindako eragozpen-oharrak honako arrazoiei buruzkoak izan dira:

	2014			2015		
Kontzeptua	Udal kopurua	Eragozpen-oharren kopurua	Zenbatekoa	Udal kopurua	Eragozpen-oharren kopurua	Zenbatekoa
a) Kontratazio-prozeduretako akatsak	11	33	507.641	19	55	629.180
b) Diru-laguntzen eta lankidetzaz hitzarmenen justifikazioan izandako akatsak	8	24	180.783	9	21	202.954
c) Behar adinako krediturik gabe egindako gastuak	14	57	221.825	13	29	203.169
d) Langileak, kontratazioa	8	11	30.233	11	25	41.861
e) Besterik	13	26	34.162	17	28	187.754
f) Fakturarik gabe	3	10	4.963	4	13	6.371
Guztira	57	161	979.607	69	171	1.271.290

69 dira, zeren eta udal baten eragozpen-oharrak hainbat irizpideren arabera izan baitaitezke.

Honako hauek dira eragozpen-ohar horien arrazoiak:

a) Kontratazio-prozeduretan akatsak egotea.

Irizpide horren pean sailkatutako eragozpen-oharrek ondorengo jatorriak dituzte:

- Zerbitzuak ematea kontratua iraungita dagoenean.
- Herriko jaiekin lotutako hainbat kontratazio.
- Urte anitzeko kontratuetan, kontratuaren guztizko zenbatespena kontuan ez hartzea esleipen prozesua ezartzeko.
- Kontraprestazioaren azkeneko balioak kontratazioerako erabilitako zenbatekoa gainditzen du.

b) Justifikazioan gabeziak egotea.

Justifikazioan gabezi batzuk aurkitu dira funtsen aplikazioa frogatzeko, zeren eta fakturak ez baitira beti aurkezten, eta aurkezten direnek ere ez baitituzte betekizun guztiak betetzen.

c) Behar adinako krediturik gabe egindako gastuak.

Zenbait kasutan, eragozpen-oharra egitearen ondorioz gastu batzuk zuzendu egin dira izapidetzeak irauten zuen bitartean; gainerakoak, oro har, zenbateko txikiak dituzten kontusailei dagozkie, eta aurrekontuan edo lotura-poltsan dauden kredituak gainditzeari buruzkoak dira.

d) Langileak.

Ordainketak eta aparteko orduen ordainketak egitea aldezturik erabakiak eduki gabe edo araudiari egokitu gabe. Batzuetan, herriko jaietan dute jatorria.

e) Beste batzuk.

Kasuistika anitza biltzen da hemen. Nabarmentzekoak dira aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko araudia ez betetzeagatik aurkeztutakoak.

f) Fakturarik gabe

Nagusiki, gastu txikiak dira, eta haien justifikazioa jaso-agiri bat izaten da.

Bosgarrena. Eragozpen-oharrak honela ebatzi dira:

- 148 kasutan, alkateak edo udalaren osoko bilkurak ebatzi dute desadostasuna, eta espedientea izapidetzen jarraitu da. Haien zenbatekoak 1.054.848 euro egiten du.
- 23 kasutan, espedientea zuzendu egin da. Haien zenbatekoak 216.442 euro egiten du.

Ez daukagu jasota kasu guztietan osoko bilkurari aurkeztu izana egindako eragozpen-oharren aurka entitateko lehendakariak eman dituen ebazpen guztiei buruzko txostena; izan ere, horixe eskatzen du Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 246. artikulua.

Seigarrena. 70.000 biztanletik gorakoa den Nafarroako udal bakarrean, udal kontu-hartzailetzak ez du eragozpen-oharrik aurkeztu.

7.a Positibotzat jotzen dugu toki entitateen kontu-hartzailetza zerbitzuetako langileen jarduketan, zeren eta aztertutako eragozpen-ohar askoren edukitik ondorioztatzen baita zorrotzak direla beren jarduketan, eta ikusten baita askotan kasuko udalak, eragozpen-oharren jakitun, prozedura zuzentzen duela, gertatutako berriz gerta ez dadin.

Laburbilduz, ondoriozta dezakegu ezen toki entitateen erantzun-maila oso altua izan dela eta, oro har, eragozpen-oharren arrazoi nagusiak honako hauek izaten direla: iraungitako kontratuak berriro ez arren prestazioa ematen jarraitzen da; kontratazioaren balioa zenbatesteko eta, horrenbestez, jarraitu beharreko prozedura aukeratzeko, urteko ordainketa guztiak kontuan ez hartzea; herriko jaiekin lotutako gastu batzuk; zenbait entitaterekiko harremanak (kirol klubak, musika bandak...); aurrekontu-kredituak gainditzea edo prozedura ez betetzea; langileen zenbait ordainsari (aparteko orduak, herriko jaietan lan egiteagatiko esker-sariak...), nahiz eta halakoetan zenbatekoak txikiak diren. Gehienetan, alkateak edo osoko bilkurak espedienteak izapidetzen jarraitzen dute.

Hori guztia dela eta, hona gure gomendioak:

- *Kontratuak esleitzeko kasuko prozedurak behar beste denborarekin deitzea, haien muga-eguna baino lehenago ebatzita egon daitezen.*
- *Kontuan hartzea araudiak ezartzen duela urte anitzeko kontratuetan kalkulaturako balioa hartu beharra dagoela kontuan esleipen-prozedura zein den finkatzeko.*
- *Bidezko diren lizitazio-prozeduretarako dei egitea, gastuari buruz kalkulaturako balioak araudian finkaturako mugak gainditzen dituenean.*
- *Herriko jaiak urtero errepikatzen den zerbait direnez, arrazoi hori dela-eta egiten diren gastuak eta kontratazioak araudi indardunari egokitzea.*
- *Egiaztagiriak exijitzea, araudian ezarritako baldintza guztiekin.*
- *Langileen ordainsariak plantillan edo, kasua bada, hitzarmen kolektiboan adierazitakoari egokitzea.*
- *Gastuak finkaturako prozeduraren arabera egitea, horren barne direla hasierako baimena eta lotura-poltsako saldoa konprobatzea; eta, kasua bada, aurrekontu-figurak erabiltzea lotura-poltsan behar adinako kreditua hornitzeko, gastuak egin baino lehen.*
- *Osoko bilkurari aurkeztea egindako eragozpen-oharren aurka toki entitateko lehendakariak eman dituen ebazpen guztiei buruzko txostena.*

Toki entitateetako kontu-hartzailera zerbitzuek egindako eragozpen-oharrei buruzko txosten onen osagarri, aipatu nahi dugu gaur arte Foru Komunitateak ez duela Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea egokitu 27/2013 Legearen bigarren xedapen gehigarrian xedaturakoaren arabera, Nafarroako toki entitateetako kontu-hartzaileek informazioa Foru Komunitateari eta Nafarroako Kontuen Ganberari igortzeko betebeharrei dagokienez, aipaturako oinarritzko araudia betetzearen ondorioetarako.

Hori dela eta, Foru Komunitateari gomendatzen diogu toki ogasunei buruzko bere legedia egokitu dezala aurrekontu-egonkortasunaren arloari buruzko Estatuko oinarritzko legedian jasotako aurreikuspenen arabera eta, zehazki, tokiko kontu-hartzaileek Foru Komunitateari eta Kontuen Ganberari informazioa igortzeko betebeharrari dagokienez.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko urriaren 4an

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga

1. ERANSKINA. GURE ESKAERARI ERANTZUN EZ DIOTEN ENTITATEEN ZERRENDA:

Mankomunitateak:

Beire eta Pitillasko Langileriaren Mankomunitatea
 Ezka-Zaraitzuko Hondakin Solidoen Mankomunitatea
 Allo, Arellano, Arronitz, Deikaztelu eta Leringo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
 Buñuel aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
 Los Arcosko Eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
 Queiles Ibarra Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
 Izarbeibarko Mankomunitatea
 Goi Erribera Kirol Mankomunitatea (desegiteko bidean)
 Orreaga Kirol Mankomunitatea
 San Frantzisko Xabierkoa Egoitzaren Mankomunitatea
 Iratiko Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitatea
 Kokoriko Mendietako Batzarra
 Ameskoako Limitaciones mendiko Batzarrea
 Erregerenako Mankomunitatea

Udalak	Biztanleria
Anue	464
Burgi	223
Lantz	151
Los Arcos	1.136
Guztira	1.974